

UEFA EUROPA LEAGUEREN FINALERAKO UDAL OPERATIBO ZABALAK DATORREN ASTEAZKENEAN, MAIATZAK 21, BILBON

- Hilaren 19tik aurrera, astelehena, herritarrek aldaketak jasango dituzte zenbait arlotan: trafikoa, aparkalekuetan eta zabor-bilketan, besteak beste.
- Finalaren egunean, ibilgailu pribatua ez erabiltzea gomendatzen da, eta Bilbora garraio publikoan sartzea, batez ere metroan eta trenean (zerbitzua indartuko da).
- Udaltzaingoko langile gehienak ezarritako dispositiboetan lan egiteko moduan egongo dira; suhiltzaileek, berriz, ohiko zaintza nabarmen indartuko dute.
- Garbiketa Zerbitzuko 60 langile arduratuko dira kaleak garbitzeaz, edukiontziak mugitzeaz, eta hondakinak bildu eta tratamendu-instalazioetara eramateaz.

(Bilbo, 2025eko maiatzaren 14a).- Datorren astean, maiatzaren 21ean, **UEFA Europa League-ren finala** jokatu da Bilbon, eta horrek **hainbat eragin izango ditu herritarrengan**, mugikortasunetik hasi eta hondakinen bilketaraino.

Horregatik, **Udala hainbat sailen artean koordinatutako dispositibo zabal bat prestatzen ari da**. Segurtasuna; Mugikortasuna; Obra Publikoak eta Zerbitzuak; Gazteria eta Kirola; Garapen Ekonomiko, Merkataritza, Turismo eta Enplegua... Baina, horretaz gain, **komunikazioa indartzen ari gara**, bizilagunek aldaketa horiek eta egon daitezkeen soluzio edo alternatibak ezagutzeko.

TRAFIKO-MOZKETAK, APARKALEKUAK ETA GARAJEAK

BASURTU, INDAUTXU ETA OLABEAGA

Partida jokatzeko prestatutako dispositiboak **leku batzuetan trafikoa moztea aurreikusten du**. Garrantzitsuenak San Mames inguruan izango dira, eta batez ere **Basurtu, Indautxu eta Olabeaga** auzoetan izango dute eragina.

Inguru horretan egingo da **trafiko-mozketarik luzeena, maiatzaren 21eko 00:00etatik maiatzaren 22ko (osteguna) 05:00etara**. Zirkulazioa eteteko, hesiak ipiniko dira **Sabino Arana** etorbidean, **Jesusen Bihotzaren** eta **Simon Bolivar** kalearen artean. **San Mamesen** perimetroa ere moztuko da, **Felipe Serrate**, **Ventosa bidea**, **Luis Briñas** eta **Zunzunegui** etorbidearen artean.

09:00etatik aurrera gutxi gorabehera, itxita egongo da ibilgailuen A8rako irteera Sabino Aranan zehar, Urkixo zumarkaletik. 14:00etan inguru etengo da zirkulazioa Euskalduna zubian, **Jesusen Bihotzaren** plazan, **Kale Nagusian** (María Díaz Harokoraino),

eta Jose Maria Escuza kalean. Halaber, zirkulazioa aldizka etengo da Trenbideko etorbidean, Sabino Aranaren eta Ametzolako biribilgunearen artean.

Aparkalekuak hilaren 20tik 22ra bitartean kenduko dira zirkulazioa etengo den kale horietan, baita Anselmo Clavé kalean, Basurtuko Kaputxinoen kalean eta Zunzunegui kalean ere.

Okupatu beharreko eremuak aldeztu aurretik seinaleztatuko dira, eta kasu bakoitzean egunak eta orduak adieraziko dira.

Kale horietan dauden garajeetan ezin izango da sartu ez irten hilaren 21eko 15:00etatik hilaren 22ko 05:00etara, salbu eta Udaltzaingok baimena ematen badu, zona horretan dabilen jendearen arabera.

Ordutegi horretan, **Basurtu, Indautxu eta Olabeagan sartzeko eta irteteko**, Autonomia, Zabalburu eta Juan de Garay kaleak erabili ahalko dira, alde batetik, eta, Basurtu-Kastrexana errepidea eta Kadaguako korridorea, bestetik. Bizilagunak larrialdi atzeraezinak dituztenean bakarrik sartu ahalko dira auzo horietan.

San Mamesetik gertu dauden etxebizitzetara, hau da, futbol-zelaiko segurtasun-eraztunen barruan dauden etxebizitzetara, **hiru bidetatik iritsi ahalko dira oinezkoak**:

- Sabino Aranatik, Jesusen Bihotza plazan eta Zunzunegui etorbideko izkinan, tranbiarekiko paraleloan dagoen espaloitik.
- Luis Briñasetik, zenbaki bakoitietako espaloitik.
- Eta, Ventosa bideko etxebizitzetara, oinezkoen sarbidea kale horren eta Trokabidearen artean egongo da.

AMETZOLA

Fan Meeting Pointetako bat, zehazki Tottenham-en zaleak hartuko dituen, Ametzolan kokatuko da.

Hala, **ostiral honetatik (maiatzak 16, muntaketaren hasiera) eta 25era arte arte** (igandea, desmuntaketaren amaiera), **Trenbidearen etorbidea okupatuko da geltokiko biribilguneetik kalearen amaieraraino, baita inguruko oinezkoentzako eremuak ere.**

Ondorioz, **maiatzaren 18tik (igandea) maiatzaren 24ra (larunbata), hainbat aparkaleku okupatuko dira** Trenbideko etorbidean (azken zatian), baita Santiago Brouard (Ugalde eta Trenbide Etorbidearen tartean), Ugalde (5 plaza) eta María Victoria Uribe Laso (2 plaza) kaleetan ere.

Autonomia kalean -atari bakoitien aldean- ere ezin izango da aparkatu hilaren 21eko 10:00etatik hilaren 22ko 14:00etara, zehazki Gordoniz eta Concha Jeneralaren Kaleen arteko tartean (batez ere Tottenham-en zaleak aireportutik ekartzen eta eramaten dituzten autobusentzat erreserbatua).

Atari bikoitien aldean, berriz, Gordoniz eta Concha Jeneralaren kaleen arteko tartean, ezin izango da aparkatu maiatzaren 20ko 22:00etatik aurrera.

Okupatu beharreko eremuak aldeztu aurretik seinaleztatuko dira, eta kasu guztietan egunak eta orduak adieraziko dira.

Inguru horretako trafiko-mozketa garrantzitsuena astelehenean hasiko da (maiatzak 19), 16:00etan, eta ostiralean (maiatzak 23) bukatuko da, 12:00etan. Denboraldi horretan, ezingo da zirkulatu Trenbideko etorbidean zehar, zehazki, Gordóniz eta Santiago Brouard kaleen artean.

Eragindako perimetroko **atarietan bizi diren pertsonak** oinezkoentzako korridore batetik sartuko dira etxera; **garajeetan sartzeko eta/edo irteteko**, berriz, Ugalde kalea eta horretarako prestatutako eremua erabiliko dira.

ETXEBARRIA PARKEA

Manchester United-en zaleak beste Fan Meeting Point batean bilduko dira, **Etxebarria parkean**. Parke horren eremu zabal bat okupatuta geratuko da maiatzaren 16tik (ostirala) 22ra (osteguna).

Tximiniaren ondoko haur-parkea ezin izango da erabili. Oinezko pasabide bat jarriko da Quintana plazatik eta parkeko sarbidetik.

Finalaren eguneko 00:00etatik hurrengo eguneko 14:00etara (osteguna), Begoñako Basilikako aparkalekua okupatuko da, bai eta Zumalakarregi etorbideko eta Begoñako Andra Mariako inguruko aparkalekuak ere, autobusak aparkatzeko. Pixka bat geroago, asteazkenean, hilak 21, 09:00etatik aurrera, Zumalacarregui etorbidean zirkulazio-errei bat okupatuko da, Guridi Musikariaren biribilgunetik Begoñako tuneletaraino, autobusak aparkatzeko kasu honetan ere.

Horregatik, hilaren 21eko 22:00etatik aurrera, Manchester United-eko zale guztiek autobusetan alde egin arte, trafikorako itxita egongo da Zumalacarregui etorbidea (San Agustin biribilgunearen eta Guridi Musikariaren biribilgunearen artean).

ERAGINDAKO BESTE INGURUNE BATZUK

Areatzak eta Arriaga plazak ere izango dute protagonismoa finala jokatzen denean, bertan antolatuko baita **UEFA Europa Leagueren Fan Festival** delakoa, maiatzaren 20an eta 21ean.

Horrek esan nahi du aldaketak egon litezkeela oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioan ingurune horretan, dagoen publikoaren arabera.

Maiatzaren 21ean, 12:00etatik 14:00etara, gutxi gorabehera, ibilgailuen zirkulazioa etengo da Mesedeetako zubiaren, Areatzako zubiaren eta Ernesto Erkoreka plazaren arteko eremuan. Halere, eragindako garajeetarako sarrera eta irteera bideratuko dira.

Asteazkenean eta ostegunean aparkaleku-erreserbak egingo dira Zingira eta Bailén kaleetan eta hiriko beste eremu batzuetan, hala nola Botikazar erriberan (Iruña eta Rafaela Ybarra kaleen artean).

Halaber, Euskalduna Zubian ibilgailuen zirkulazioa moztuko da hilaren 21eko (asteazkena) 14:00etatik hilaren 22ko (osteguna) 02:00ak arte.

Bestalde, **A-8 autobidetik Bilborako sarbidea, Zunzunegi etorbidetik, kolokan egongo da Ertzaintzak hilaren 21eko 15:00etatik aurrera egingo duen mozketaren ondorioz.** Hala, ibilgailu partikularrentzako sarrera Juan de Garay, Enekuri, Miraflores eta Santo Domingotik egin beharko litzateke.

ALDAKETAK GARRAIO PUBLIKOAN, ZERBITZUA INDARTZEA

Oro har, **norberaren autoa ez erabiltzea** gomendatzen da, eta **ahal den neurrian garraio publikoan sartzea eta ibiltzea Bilbon**, batik bat metroan edo trenean. Eragindako zonetan zehar doazen Bilbobus eta Bizkaibus linea gehienen ibilbideak eta geroak kendu edo aldatu egingo dira.

Zer desbideratze izango diren eta zer geltoki aldatu eta kenduko diren behar bezala jakinaraziko da, ohiko bideetatik: sare sozialak, informazio-panelak, markesinak.... Informazio gehiago, hemen kontsultatu: www.bilbao.eus/bilbobus webgunean edo 010 telefono zenbakian.

Bestetik, **metro, tren eta tranbia bidezko garraio publikoa indartu egingo da.**

Metro Bilbaok goizeko 5:55etik 23:02ra arte emango du zerbitzua; trenak 7,5 minutuko maiztasunarekin zirkulatuko dute –ohiko ordutegian–, eta ordu-tarte batzuetan zerbitzua indartu egingo da, adibidez, 13:50etik 14:30era. Denbora horretan, maiztasunak 2:30 eta 5 minutu bitartekoak izango dira.

Gainera, eskainitako zerbitzua lanegun arrunt bat gehiagora zabalduko da. Metroa 3:00ak arte ibiliko da.

Kontuan izan behar da San Mameseko geltokia itxita egongo dela hilaren 21eko 15:00etatik hilaren 22ko 06:00etara.

Ordu horretatik aurrera, **tranbiak** ez du zirkulatuko Euskalduna eta La Casilla artean. Hala ere, zerbitzua indartu egingo da partidaren aurreko orduetan, baita partidaren zehar eta hurrengo orduetan ere. Kontuan izango da luzapena eta penaltiak egon litezkeela. Hala, Pio Baroja eta Euskalduna geltokien artean, **15:00etatik 21:10era, tranbia sei minutuan**

behin ibiliko da. 21:10etik 23:30era arte (maiatzaren 22ko 02:20ra arte, baldin eta partida luzatzen bada), hamabost minutuan behin zirkulatuko dute, ibilbide bera eginez, Pio Baroja eta Euskalduna artean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, erabiltzaileek www.euskotren.eus webgunea eta Euskotrenen aplikazio ofiziala erabil ditzakete.

Renferen aldiriko trenei dagokienez, Ametzola eta Autonomiako geltokiak itxita egongo dira hilaren 21eko 09:30etik 22ko osteguneko 09:00etara. Olabeaga eta San Mameseko geltokiak maiatzaren 21eko 15:00etatik aurrera itxiko dira.

TAOri dagokionez, astelehenetik, hilak 19, 09:00etatik, eta larunbata, hilak 24, 14:00etara, zerbitzuak egoiliarren eremuak aldatuko ditu, DES-R egoiliarren bereizgarria duten pertsonak hiriko edozein sektore berdetan aparkatzeko aukera izan dezaten.

GARBIKETAKO ETA HONDAKINEN KUDEAKETAKO ZERBITZUA

Finala gure hirian jokatzeko dakartzan beharrei aurre egiteko, Udalak **garbiketarako eta hondakinen bilketarako dispositibo berezi eta indartu bat prestatu du. Gainera, futbol-zelaiaren inguruan kokatutako edukiontzia lekuz aldatuko ditu, segurtasun-arrazoia tarteko.**

Hain zuzen ere, edukiontzia lekuz aldatuko direnez gero, herritarrei gomendatzen zaie kalean zaborrik ez uzteko edukiontzirik ez dagoen bitartean.

Saltokietarako eta ostalaritzarako hondakinak biltzeko zerbitzua, edukiontzia kentzen diren oinezkoentzako gunean, ohiko bilketa-ibilbideak aurreratuz egingo da (15:00ak baino lehen).

Zehazki, **60 langilek eta 24 bitarteko teknikok osatuko dute garbiketako dispositiboa. Gainera, 195 kubo eta 108 edukiontzi banatuko dira hiru gunetan: Etxebarria parkeko eta Ametzolako Fan Meeting Point bietan, eta Areatzako Fan Festival gunean.** Helburua da futbol-talde bakoitzaren jarraitzaileak eta herritarrak joango diren espazioetan sortutako hondakinen gaikako bilketa sustatzea.

SEGURTASUN- ETA LARRIALDI-NEURRIEN EZARPENA

Udaltzaingoak erabilgarri dituen langile gehienak izango ditu Ertzaintzarekin batera ezartzen diren baterako dispositiboetan modu koordinatuan lan egiteko. Horretarako, trafikoa zer tokitan eten beharko den erabakiko du, eta behar diren zaintza-lanak egingo ditu partiduaren aurretik dena ondo joan dadin, jokalaria taldeak eta zaleak arazorik gabe sar daitezela San Mamesera, eta herritarren segurtasuna hiri osoan ziurtatuta egon dadin.

Gainera, **Babes Zibileko Zuzendaritzak suhiltzaileen dispositibo handi bat prestatu du, lan prebentiboak eta operatiboak egiteko.** Alde horretatik, **maiatzaren 21ean**

(asteazkenean) 65 laguneko dispositiboa egongo da Miribillako eta Deustuko parkeetan. Gainera, San Mames estadioan bertan presentzia egongo da.

Bestalde, **Babes Zibileko ikuskariek ikuskapen-lanak egingo dituzte ekitaldiarekin lotuta dauden espazio guztietako karpa eta agertokietan:** Fan Meeting Points, Fan Festival...

ERAZTUNAREN BARRUKO OSTALARITZA ETA SALTOKIAK ETA FUTBOL-ZELAIKO SARRERA

Segurtasuneko hiru eraztun ezarriko dira San Mames zelaira nor sartzen den kontrolatzeko, eta partidua ikusteko sarrera duten pertsonak bakarrik sartu ahal izango dira eremu horretara.

Pertsona horiek **perimetro mugatuaren barruan dauden taberna, jatetxe eta saltokietara sartu ahal izango dira. Taberna, jatetxe eta saltoki horiek egun guztian egongo dira irekita.**

Eremu horretako saltoki, taberna eta jatetxeei gomendatzen zaie aurreko egunean, maiatzaren 20an, hornikuntza egitea.

Perimetro mugatu horrek honako kale hauei eragingo lieke:

- Felipe Serrate: 1. eta 3. atariak.
- Poza lizentziaduna: 62, 64 eta 77.
- Luis Briñas: 1etik 23ra.
- Eta Sabino Arana: 4tik 30era.

Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udalak eta UEFAk saltoki- eta ostalaritza-elkarteekin hainbat elkarriketa eta bilera egin ondoren, segurtasun-perimetroaren barruko edariak kristalezko edalontzietan ez zerbitzatzea erabaki da.

Beste alde batetik, estadiora sartuko diren pertsona guztiei gomendatzen zaie UEFaren aholkuak betetzea eta San Mames estadioan bertan nahiz hiri osoan ezarritako kolore-seinaleak kontuan hartzea.

BILBAO KIROLAK

Bestalde, **Bilbao Kirolak-ek San Mameseko udal kiroldegia itxiko du maiatzaren 20an eta 21ean**, segurtasun-arrazoiengatik, UEFA Europa League finala dela-eta.

Futbol-zelaian egiten diren beste topaketa eta ekitaldi batzuetan egiten duen bezala, horren berri emango die abonatuiei, posta elektronikoaren bidez eta udal-instalazioan bertan berriarazko kartelak jarrita gaurtik aurrera.

HERRITARRENTZAKO OHARRAK

Bilboko Udalak hainbat ohar prestatu ditu kirol-ekitaldiaren eragina jasango duten gune eta auzoetako herritarrentzat, **eta postontzietan ere banatuko ditu. Kalean 54.000 aletik gora jarriko dira** datozen egunetan. Zehazki, **maiatzaren 15ean (bihar) ekingo zaio oharrok banatzeari.**

Ohar horietan, jakitera emango da non moztuko da zirkulazioa, non izango diren auzokideentzako irteera eta sarbide alternatiboak, non aparkaleku erreserbak, eta non bestelako afekzio batzuk, hala nola edukiontziak lekuz aldatzea.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO POLIZIA:** [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BABES ZIBILA:** [FACEBOOK](#) | [X](#)

AMPLIOS OPERATIVOS MUNICIPALES DE CARA A LA FINAL DE LA UEFA EUROPA LEAGUE EL PRÓXIMO MIÉRCOLES, 21 DE MAYO, EN BILBAO

- Desde el lunes 19 se producirán diferentes afecciones a la ciudadanía en distintos ámbitos, desde el tráfico a los aparcamientos, pasando por la recogida de basura.
- El día de la final se recomienda no utilizar el vehículo privado y acceder a Bilbao en transporte público, fundamentalmente metro y tren, cuyos servicios serán reforzados.
- El grueso de la plantilla de la Policía Municipal está disponible para trabajar en los dispositivos establecidos, mientras que el cuerpo de Bomberas y Bomberos reforzará de forma considerable su guardia habitual.
- 60 operarias y operarios del Servicio de Limpieza se encargarán de la limpieza de las calles, movimiento de contenedores y recogida de residuos y traslado a las distintas plantas de tratamiento.

(Bilbao, a 14 de mayo de 2025).- La celebración de la final de la UEFA Europa League la próxima semana en Bilbao, el miércoles 21 de mayo, **causará una serie de afecciones a la ciudadanía en diferentes ámbitos**, desde la movilidad hasta la recogida de residuos.

Es por ello por lo que, **desde el Ayuntamiento, se está ultimando un amplio dispositivo coordinado entre diferentes áreas**. Desde Seguridad; Movilidad; Obras Públicas y Servicios; Juventud y Deporte; Desarrollo Económico, Comercio, Empleo y Turismo... **pero también reforzando la comunicación para que vecinas y vecinos conozcan esas afectaciones y las posibles soluciones o alternativas ante ellas.**

CORTES DE TRÁFICO, APARCAMIENTOS Y GARAJES

BASURTO, INDAUTXU Y OLABEAGA

El dispositivo establecido para la celebración del encuentro contempla **multitud de cortes de tráfico**. Los más importantes se producirán en el entorno de San Mamés y **afectarán fundamentalmente a los barrios de Basurto, Indautxu y Olabeaga.**

En este entorno se producirá **el corte de tráfico más largo, que se prolongará entre las 00:00 horas del día 21 de mayo hasta las 05:00 horas del jueves, día 22**. Se cortará mediante vallas la **Avenida Sabino Arana, entre el Sagrado Corazón y Simón Bolívar; y también el perímetro de San Mamés comprendido entre Felipe Serrate, Camino de la Ventosa, Luis Briñas y Avenida Zunzunegui.**

La salida de vehículos hacía la A-8 por Sabino Arana desde Alameda Urquijo se cerrará en torno a las 09:00 horas. A las 14:00 horas aproximadamente se cortará

también el Puente Euskalduna, la plaza del Sagrado Corazón, la Gran Vía hasta María Díaz de Haro; y la calle Jose María Escuza. Se producirán también cortes intermitentes en Avenida del Ferrocarril, entre Sabino Arana y la rotonda de Ametzola.

Se suprimirán los aparcamientos desde el día 20 hasta el día 22 en las calles con corte de tráfico mencionadas, al igual que en Anselmo Clavé, Capuchinos de Basurto, y Zunzunegui.

Las zonas a ocupar serán señalizadas con anterioridad, indicando días y horas en cada caso.

Los garajes ubicados en todas esas calles quedarán sin acceso y/o salida entre las 15:00 horas del día 21 a las 05:00 horas del día 22, salvo que la Policía Municipal lo autorice en función de la afluencia de público.

Las salidas y accesos a Basurto, Indautxu y Olabeaga durante esa franja horaria podrán realizarse por Autonomía, Zabalburu, Juan de Garay, por un lado; y por la carretera Basurto-Kastrexana y el Corredor del Cadagua, por otro. El acceso a estos barrios quedará limitado a inaplazable urgencia de residentes.

El acceso peatonal a las viviendas próximas a San Mamés, es decir, las que se encuentran en el interior de los anillos de seguridad del estadio, **se podrá realizar por tres itinerarios**:

- Sabino Arana, en Plaza Sagrado Corazón y en la esquina con Avenida Zunzunegui, por la acera paralela al tranvía.
- Luis Briñas, por la acera de los números impares.
- Y para las viviendas de Camino de la Ventosa, el acceso peatonal se situará entre esta vía y Trokabidea.

AMETZOLA

Una de las Fan Meeting Point, en concreto la que albergará a la afición del Tottenham, se ubicará en Ametzola.

Así, **desde este mismo viernes, 16 de mayo** (inicio de montaje) y hasta el domingo 25 (final de desmontaje), **se ocupará la Avenida del Ferrocarril, desde la rotonda de la estación hasta el final de la calle y zonas peatonales aledañas**.

En consecuencia, **entre el domingo 18 y el sábado 24 de mayo, se ocuparán varios aparcamientos** de la propia Avenida del Ferrocarril (en su último tramo) y también en las calles Santiago Brouard (en el tramo entre Ugalde Avenida del Ferrocarril), Ugalde (5 plazas y María Victoria Uribe Laso (2 plazas).

En Autonomía, en el lado de los portales impares, entre las 10:00 horas del día 21 y las 14:00 horas del día 22, en el tramo comprendido entre las calles Gordóniz y General

Concha, se ocupará un carril de circulación para los autobuses que traigan y lleven del aeropuerto, fundamentalmente, aficionadas y aficionados del Tottenham.

En el lado de los portales pares de Autonomía, en el tramo comprendido entre las calles Gordóniz y General Concha, no se podrá aparcar desde las 22:00 horas del 20 de mayo.

Las zonas a ocupar serán señalizadas con anterioridad, indicando días y horas en cada caso.

El corte de tráfico más importante en este entorno se producirá entre las 16:00 horas del lunes 19 y hasta las 12:00 horas del viernes 23. Durante ese periodo se impedirá la circulación en Avenida del Ferrocarril, entre las calles Gordóniz y Santiago Brouard.

El acceso de las y los residentes a los portales del perímetro afectado se realizará por un pasillo peatonal; mientras que **el acceso y/o salida de los garajes** se realizará por la calle Ugalde y la zona habilitada para ello.

PARQUE ETXEBARRIA

La afición del Manchester United, por su parte, se concentrará en el otro Fan Meeting Point, que se ubicará en el **Parque Etxebarria**. Una amplia zona del mismo quedará ocupada, con ese fin, entre el viernes 16 y el jueves 22 de mayo.

Quedará deshabilitado el parque infantil próximo a la Chimenea y se habilitará una zona de paso peatonal desde la plaza Quintana y el acceso del parque.

Desde las 00:00 horas del día de la final y hasta las 14:00 horas del día siguiente, jueves, se ocupará el parking de la Basílica de Begoña y los estacionamientos cercanos en Avenida Zumalacárregui y Virgen de Begoña para aparcamiento de autobuses. Un poco más tarde, desde las 09:00 horas del miércoles 21 se ocupará también un carril de circulación en Avenida Zumalacárregui, desde la rotonda de Músico Guridi hasta los túneles de Begoña, también para aparcamiento de autobuses.

Es por ello, que desde las 22:00 horas del día 21 y hasta que se produzca el desalojo total de las y los aficionados del Manchester United en sus respectivos autobuses, permanecerá cerrada al tráfico la Avenida Zumalacárregui (entre las rotondas de San Agustín y Músico Guridi).

OTROS ENTORNOS AFECTADOS

El **Arenal y la plaza del Arriaga** serán otros de los lugares con protagonismo con motivo de la celebración de la final ya que será aquí donde se organice **el Fan Festival de la UEFA Europa League**, los días 20 y 21 de mayo.

Esto implicará que el tránsito peatonal y de vehículos se pueda ver afectado en este entorno, algo que vendrá condicionado por la afluencia de público.

El 21 de mayo, desde las 12:00 a las 14:00 horas, aproximadamente, se cerrará al tráfico rodado el espacio entre el puente de la Merced, el puente del Arenal y la plaza Ernesto Erkoreka, aunque se facilitará el acceso y salida a los garajes afectados.

Se harán reservas de aparcamiento -el miércoles y el jueves- en las calles Sendeja, Bailén o en otras zonas de la ciudad como Ribera de Botica Vieja (entre las calles Iruña y Rafaela Ybarra).

También se cortará el tráfico rodado en el Puente Euskalduna desde las 14:00 horas del miércoles 21, hasta las 02:00 horas del jueves 22.

Por otro lado, **el acceso de la A-8 a Bilbao por Avenida Zunzunegui va a estar comprometido por el corte que va a hacer la Ertzaintza a partir de las 15:00 horas del día 21.** Así, la entrada a la ciudad para vehículos particulares debería ser por Juan de Garay, Enekuri, Miraflores, Santo Domingo.

MODIFICACIONES Y REFUERZO DEL TRANSPORTE PÚBLICO

Se recomienda, a nivel general, **no usar el coche particular** y acceder y desplazarse por **Bilbao en la medida de lo posible en transporte público**, preferiblemente en metro o tren. La mayoría de las líneas de Bilbobus, y de Bizkaibus, que circulan por los entornos afectados, verán suprimidos o modificados sus recorridos y paradas.

De los desvíos y supresión y cambios de parada se dará cumplida información a través de los cauces habituales (redes sociales, paneles informativos, marquesinas...). Para más información, consultar en la web: www.bilbao.eus/bilbobus, o en el 010.

Por su parte **el transporte público de metro, tren y tranvía se verán reforzados.**

Metro Bilbao tendrá servicio desde las 5:55 de la mañana a las 23:02 horas, los trenes circularán con una frecuencia de 7,5 minutos -horario habitual-, reforzando en algunos tramos horarios, por ejemplo, desde las 13:50 hasta las 14:30 horas. En ese tiempo las frecuencias oscilarán entre los 2:30 y los 5 minutos.

Además, se extenderá el servicio ofrecido en un día laborable normal. Y habrá circulación de metros hasta las 3:00 horas.

Es importante subrayar que la estación de San Mamés estará cerrada desde las 15:00 horas del día 21 hasta las 06:00 horas del día 22.

El **tranvía** suprimirá a partir de la misma hora la circulación entre Euskalduna y La Casilla. Si bien, se reforzará el servicio en las horas previas al partido y también durante y en las

posteriores, contemplando incluso la posibilidad de prórroga y penaltis. Así, **de 15:00 horas a 21:10 horas** entre las paradas de Pío Baroja y Euskalduna, **el tranvía circulará con una frecuencia de seis minutos**. Desde las 21:10 y hasta las 23:30 -02:20 del día 22 de mayo, si se alargara el partido-, circularán cada quince minutos, efectuando el mismo recorrido, entre Pío Baroja y Euskalduna.

Para obtener más información las personas usuarias tienen a su disposición la página web www.euskotren.eus y la APP oficial de Euskotren.

En cuanto a **Renfe Cercanías**, las estaciones de Ametzola y Autonomía estarán cerradas desde las 09:30 horas del día 21 hasta las 09:00 horas del jueves, día 22. Las estaciones de Olabeaga y San Mamés se cerrarán a partir de las 15:00 horas del miércoles 21.

Por lo que respecta a la **OTA**, desde el lunes 19 a las 09:00 horas y hasta el sábado 24 a las 14:00 horas, el servicio modificará los ámbitos de los residentes para permitir que las personas con distintivo de residentes DES-R puedan estacionar en cualquier sector verde de la ciudad.

DESPLIEGUE DE SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

La Policía Municipal contará con el grueso de su plantilla disponible para trabajar de forma coordinada en los dispositivos conjuntos que se establezcan con Ertzaintza, estableciendo los puntos de corte de tráfico pertinentes y velando tanto por el discurrir de la previa del partido y el acceso de los equipos y aficiones a San Mamés como por la seguridad ciudadana en el conjunto de la ciudad.

Además, **desde la Dirección de Protección Civil se ha preparado un amplio dispositivo de bomberas y bomberos en tareas preventivas y operativas**. En este sentido, **el miércoles 21**, el servicio contará con un dispositivo de 65 efectivos distribuidos entre los parques de Miribilla y Deusto, además de presencia en el propio estadio de San Mamés.

Asimismo, **los inspectores de Protección Civil revisarán carpas y escenarios de todos los espacios vinculados al desarrollo del evento**: Fan Meeting Points, Fan Festival...

SERVICIO DE LIMPIEZA Y GESTIÓN DE RESIDUOS

Para abordar las necesidades derivadas de la celebración de la final en nuestra ciudad, el Ayuntamiento ha preparado **un dispositivo especial reforzado de limpieza y recogida de residuos, además del traslado de contenedores ubicados en las inmediaciones del estadio por motivos de seguridad**.

Debido precisamente a la retirada de contenedores, se recomienda a la ciudadanía no depositar basuras en la vía pública durante el tiempo de ausencia de los mismos.

El servicio de recogida de residuos para comercios y hostelería en la zona peatonalizada donde se retiren los contenedores se llevará a cabo adelantando las rutas habituales de recogida (antes de las 15.00 horas).

En concreto, el dispositivo de limpieza estará compuesto por 60 operarios y 24 medios técnicos.

Además, **se procederá a colocar de 195 cubos y 108 contenedores de diferentes fracciones distribuidos en tres zonas: las Fan Meeting Points de Parque Etxebarria y Ametzola y en el Fan Festival del Arenal**, con el objetivo de potenciar la recogida selectiva en origen de los residuos generados en los espacios a los que acudirán las y los seguidores de cada uno de los equipos, y el público en general.

HOSTELERÍA Y COMERCIOS EN EL INTERIOR DEL ANILLO Y ACCESO AL ESTADIO

Tres anillos de seguridad filtrarán los accesos al campo de San Mamés y solo podrán acceder a esa zona las personas que tengan entrada para el partido.

Estas personas podrán acceder a **los bares, restaurantes y comercios que queden en el interior del perímetro restringido, que permanecerán abiertos durante toda la jornada.**

Se aconseja a los comercios, bares y restaurantes de la mencionada zona que realicen el aprovisionamiento el día previo, 20 de mayo.

Dicho perímetro restringido afectaría a las siguientes calles:

- Felipe Serrate: portales 1 y 3.
- Licenciado Poza: 62, 64 y 77.
- Luis Briñas: del 1 al 23.
- Y Sabino Arana: del 4 al 30.

Tras una serie de conversaciones y reuniones entre Gobierno Vasco, Ayuntamiento de Bilbao y la propia UEFA con las asociaciones de comercios y hostelería, se ha acordado que las consumiciones en el interior del perímetro no se sirvan en recipiente de cristal.

Por otro lado, y para todas aquellas personas que vayan a acceder al estadio, se aconseja seguir las recomendaciones de la UEFA y atender a la señalética de colores establecida tanto en el propio estadio de San Mamés como en toda la ciudad.

BILBAO KIROLAK

Por su parte, **Bilbao Kirolak procederá al cierre del polideportivo municipal de San Mamés los días 20 y 21 de mayo** por razones de seguridad ante la celebración de la final de la UEFA Europa League.

Al igual que procede ante otros encuentros y eventos que se celebran en el estadio, informará de ello a las personas abonadas a través del correo electrónico y con cartelería específica en la propia instalación municipal a partir de hoy mismo.

AVISOS A LA CIUDADANÍA

El Ayuntamiento de Bilbao ha preparado diferentes avisos a la ciudadanía de las distintas zonas y barrios afectados por la celebración del evento deportivo, de los que **se buzonearán en vivienda y colocarán en calle más de 54.000 ejemplares** en los próximos días. En concreto, se empezarán a **distribuir desde mañana, 15 de mayo**.

En ellos se les informa tanto de los cortes de tráfico, como de las salidas y accesos alternativos para personas residentes, reservas de aparcamiento, así como otras afecciones tales como el traslado de contenedores.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- **BILBAO POLIZIA:** [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- **PROTECCIÓN CIVIL:** [FACEBOOK](#) | [X](#)